

... PRINTZIPIOAK
...BALIOAK
ETIKA.



KODE ETIKOA

2020

Índice

1. EGOAIZIAREN BALIOAK
2. PRINTZIPIOAK
3. IRIZPIDEAK
4. KODEA ERABILI ETA BETETZEA



1. Balioak

EGOIZIAK SEKTORE PRIBATUAREKIN DUEN LANKIDETZA BIDERATZEN DUEN KODE ETIKOA

Egoizia Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde bat da, independentea, irekia eta kolaboratzailea.

Honako hauek dira Egoiziako **balioak**:

- Pertsonen **duintasuna** bere dimentsio guztietan.
- **Justizia soziala**, pertsonen ongizatea lortzeko bide bakarra delako.
- **Aniztasuna errespetatzea eta onartzea.**
- **Parte-hartzea**, ezinbestekoa delako errealitatea eraldatzeko eta humanizatzeko.
- **Elkartasuna**, elkar zaintzeko, adiskidetasuna sustatzeko eta auzolana bideratzeko.
- Pertsona eta erakundeen arteko **lankidetzaren eta erantzunkidetasuna.**
- **Berdintasuna**, aukerak eraikitzeko eta erantzukizunak emakume nahiz gizonen artean partekatzeko eta, bide horretatik, gizarte berdinzaleagoa lortzeko.
- **Sare-lana** erakundeekin eta pertsona konprometitu eta antolatuekin.
- Publikoa den oro **erantzukizunez** kudeatzea, **gardentasunaren** bidez.
- Pertsonengandik **hurbil** egotea, tokian tokiko lanaren bitartez.
- **Jasangarritasuna**, beste bizimodu arduratsuagoa eta naturarekin harreman orekatua duena proposatuz.

Egoaizian hurrengo printzipio eta irizpideak ezartzen ditugu, sektore pribatuaren eta gure jardueraren arteko lankidetzak bideratuko dutenak. Honekin, bermatu nahi dugu gurekin lankidetzak-hitzarmenak adosten dituzten enpresek gure printzipioekin bat datorren portaera dutela.

2. prinTZipioAK

1. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta nazioarteko itunetan jasotako pertsonen eta giza eskubideen duintasuna errespetatzea.
2. Lan-eskubideak errespetatzea, LANEren adierazpen eta hitzarmenetan jasota dagoen bezala, elkartzeko askatasunari eta askatasun sindikalari dagokienez; derrigorrezko edo nahitaezko lan mota guztiak ezabatzea; haurren lana modu eraginkorrean indargabetzea eta enpleguaren eta okupazioaren arloko diskriminazioa ezabatzea.
3. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna errespetatzea eta bereizkeriarik eza (etnia-arrazak, sexu-aniztasuna, aniztasun funtzionala...), nazioarteko itunetan jasota dagoen bezala.
4. Ingurumenaren babesa errespetatzea, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenean (1992) eta haren protokoloetan jasotzen den bezala.
5. Arlo fiskaleko legeria nazionala eta nazioartekoa betetzea, bai jatorrizko herrialdean bai jarduerak egiten diren beste edozein herrialdean.
6. Osasun publikoa errespetatzea, bai produktuetan bai produkzio prozesuetan.

3. irizpideak

Sektore pribatuko entitateak baztertu edo baloratzeko irizpideak prestatu dira:

- Jarduera ekonomikoa Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean garatzen dutenak lehenetsiko dira.
- Kanpoan utziko dira Egoaiziako lantaldearen iritziz haren irudiarekin eta balioekin bat ez datozen balioespen publikoa eta gizarte-balioa duten produktu edo zerbitzuen inguruko kanpainak egin, merkaturatu edo ekoizten dituztenak.
- Egoaiziak bermatuko du sektore pribatuarekin dituen harremanek ez dutela baldintzatzen bere erabaki eta jardueren independentzia.

Baztertutako sektoreak

- Armak eta horrelakotzat erabil daitezkeen beste osagai batzuk fabrikatu, saldu eta banatzea.
- Pornografia.
- Tabakoa.
- Alkohola eta graduazio handiko destilatuak.
- Energia nuklearra.
- Funts espekulatibo hutsak.
- Jokoa.
- Ustelkeria, eroskeria edo ilegaltasun kasuetan konplize, sustatzaile edo partaide diren sektore pribatuko entitateak.
- Bizitzaren kontra edo indarkeria sustatzen duten sektore pribatuko entitateak

Arreta bereziko sektoreak

- Farmazeutikoak.
- Bankua.
- Erauzketa- eta energia-enpresak.

4. Kode etikoa erabiltzea eta betetzea

- **Sektore pribatuarekin lankidetzan aritzeko erabakia Egoaiziako lantaldeari dagokio beti (gutxienez 3 pertsona).**
- Produktuak, zozketak, objektuak edo bestelako gauzak saltzearen helburua Egoaizia ikusaraztea izango da beti, eta inoiz ez irabazia.
- Egoaiziak Administrazioan eta Kudeaketan erabil dezakeen sektore pribatuko dohaintzen eta diru-sarreraren gehieneko portzentajea %10ekoa izango da.